Euzkadi

ERRIETATIK

BILBO'TIK

AUZUNE YAYAK

Terese Deunan yayak dirala ta Uribarri auzoan ospatuko diranak urrengo auneek dira: larunbatez goizian goizeti txistu ta tanboliñaz biribilketa alaitsuak. Gabean zortzi ta erditatik amaikaterditara errromeriya, eresbatz, auspu-soñu, dultzaiña, txistu ta abar. Gaur igandez goizian zortzi terdietan Senci Deuna'n txadonan jaupa bat esango da auzunan il diranen pogoen alde. Bederatzi terdietan mutikoen lasterketak ainbat sarigaz.

Amar terdietan sekulako ezpa-dantzaketia. Onen ostian ordu bat arte yolas iritsuak, ta gabean aurreko egunean lez errromeriyak.

GASTEIZ'ERA

Gaur igandez Araba'ko Uri nausiyan Athletic'yak Alaves'agaz yokatzen daula ta asko ta asko dira ara yuateko txangak gertau ditubezenak beraz Bilbotarrik asko izango da gaur Gasteiz aldean. Geyen yokatzen daunak irabazi dayala ta guztiyok ondo ta asarratu barik ibilli anayak yuaguz areik eta.

ITXAS-ONTZI BERRIYA

Datorren astartean 21'yan ta arratsaldeko iurak inguruan izango da Campsa bazkundako Euskalduna lantokiyan egin dan "Campoamor" deritxon 14.752 upakadako ontzi ederran uretara yaurtikerea edo "botadiriya". Lantegi ortan ordu bi tatik arrera yai izango da ta txistu ta tanboliñak alaituko ditu ango inguruok.

ISKILLUAK BATU

Bilbo'ko iskillutegi guztiyetan egozan "rifle" "carabina"" errebolber" suantz ta abar danak batu ei ditubez jaurlariyan gizkiz ta Garellano'ko guda-etxean gorde. Izpar oneri be erderazko esakun au ezarri dayogun "El miedo es libre".

ABEL-ETXE.

AZPEITI'TIK

EMEN NAIZ BERRIRO

Udaldiko txangoa igaro ta oporraldi bat egin ondoren zuzentzen naiz gaurko onetan ikurringi maite onen orrialdetara nere lankortz erdoitutakoakin ta jarraituko ogu al degun eran txoko onetatik idazki ederenak bialtzen.

DAZLE LAGUN GUZIARI

Agur eztitxu bat izparringi onen idazle guziari batez ere nere txango aldian aiñ ongi jarraitu duten bere izparrak gure txoko onetzatik bideitzen ta nai dezutena ondu zuen naia betetzeko prestu dagoen.

ZANDEAN ITZIAR'EN

Emengo luistar talde berezi bat izandu zan igarotako igandean Itziar'ko Amaiñetan bildu ziran Gipuzkoa guziko ikurrak besarkatzen.

Oso alaitasun aundian igaro genduan ori batez ere bazkarian bildu giñan idazleak.

Bertan sortu zan Luistar-idazlien bazkun Bazkun orren egin bear bereziena da izparringiai idazki bidez laguntza eintzea ta gure Ezkadi'ko oitura zarrak ontzea, atzerrikoak aldendu eraziaz.

Ara luistarrak orrelako asmo txalogarrak artzen dituzutenak!

ZUTA

Lasotasun galgarria igaro ondoren kartu dira Agirre'tar Bernarda, Zendoya Luiki, Elzaurdi'tar Gurutz ta Gorostegi-Andoni.

Zuetu gera ta lenbailen lengo eran jarraitu opa dizuet.

ZORIK

Ikitzen da Astigarraga'tar Zirilo gure ona biotzekua.

Ikar sendatu, Zirilo.

ITURRI-TXIKI.

MARARI

ZUYA

Datorren asteartian Urtsule neskutzaren yaiya ospatuko da. Egun orretan ikurunak deunaren opaz egingo dira.

Orretan meza nagosiya berbaldi ta guzkango da; ta arratsaldian besperak eta ortza beti lez ibilceunaz "prosesiñuaz" ango da. Baita arratsaldiah tanboliñ soan errromeri garbiya be illuntzirarte ango da.

ZAMIOLA'RA

Urkiola'n ospatu zan Urriyaire albo erriyetatik iñozko laguptxien yuan zan, Itxuraz, aurregun an izan zan eurite andiyagaz, gentiak egin biar izan eban. Arratsaldian, lez, emengo gazte geiyenak ango erira yuan ziran; eta eureen artian batzuk alako txarto be etzituezan.

ITAÑAK

Ezika izan da be asi dira elduten. Gozederrak dagoz, ta ugari be naikue. Baz, lengo urtietan baño zegozer atzego datoz. Eguraldiyaren gora-beria

AN-ETORRI

Okirio'ra yuan zan Altzaga'tar Luke ra.

Abeño'tik etorrita, igandean egon zan Idoiagabetia'tar Yon Martiñ ango Luki'tar Lugin Batza'ko lencakaria.

Santurtze'tik etorri ziran Kapanaga'-Victor eta eta emaztia.

Bilbo'tik, Garrido'tar Imanol eta Goi-Luki.

Zibar'era yuan ziran Kapanaga'tar eta Zabarte'tar Telespor.

AZKIÑ BAT

Iraku arratsaldian Gazteiz aldetik etogarkiñ edo aidoflano bat agertu ta an goi-goian egazkada ederrak ituan. Gero yakiñ zan, egazkari bat eta aspaldiz emen inguruan ten dan neskatilla bat izan zirala; ori-onen ganian bira batzuk eginda, Gazteiz'era yuan zirala. ¡Neskatxetsua! Orretan beintzat...

ZIRINDULARIAK

Lago'n, Pausta Deuna'ren yaiyan zan txirrindulari-aiñeketakuak amaiguruan eldu ziran emengo erriko Añeketariyak egiñaiian bizkor ran. Eta mutikuak aurrenengo ainbat lagun egoan eureri itxaroten. Ez ei? Artzubi'ko mutilla be eureen ta etorran da!

ZA-IÑARKUNAK

Martian, millaka gudariyak etorri Arboto'n eta Saibi'ñ guda-iñarkunak guztiyan gogor diarcue; ta sarri ondoa andiyak entzuten dira. Itxurak ugeri yaurtiten dabe. Egunokaz, ortan atxa, mendiya ta guda-mutille baño besterik eztogu ikusten. Oneek, dagonillian eulitan baño be geiyago dabiltz. Euren artian euzkotar asko dago, ta euzkeldunek be ez gitxi. Ta beste enparau guztiyak orko zerekuak... dira.

Arratsalde beranduetan, mendi-basuetatik alaitasunez yatsiten dira; batez-be Donostia'ko Sicilia errekimentukuak. Ba oneek eguenian txiki ta anci danak alkarri elduta euzkel-abesti politak abestuten urru-urruka ta santzaka umore onian etorri ziran. Danak ixildu bagarik santzo egiten eben; eta erriari berarizko alaitasuna damotsoen... ¡Mendiyak itz balegiye...!

BEI EMOKORRA

Lengo astian, Mañasko-errota'n olandar endako bei batek iru txal argitaratu zituban. Eta ain ziran txai ederrak ze yaiyota beriala pixatu ebezan; eta iruren artian 82 kilo euki ebezan. Baña tamalez, yaiyota laster il ziran.

Baserritarrak diñoenez, orrenbeste pixuko iru txal era batera gitxiten izaten dira. Onango bei asko balego, gure baserritarrok ez legokez asarre.

GAURKO GAUZAK

Alditxu onetan, barri itzalak baño besterik eztoguz entzuten. Batian au ta bestian ori, aizia kekarrita baño ezpada be bastertxu onetara iñun diran izpar bildurgarriyak eltzen dira. Lengo baten, Izurtza'ko gizon bat burkada iriaz basotik etxerantza etorren, eta Sagarbaltzeta'ko zelaitxuan emengo gizon bat aurkitu eban, eta ben (seriyo) esan eutson.

—Aizkidie, biziko ete gara?

Eta emenguak erantzun eutson.

—¡Arraiyie! Itxiko ete ceuskue?

An inguruan aurkitzen zan batek guztiya entzunda berekautan esan eban "Euzkotarrai, geure gauza guztiyakaz bakez itxi daiuskuela ta enparauok, ¡or konpon!

MAÑARIKO.

AZKENEKO OSTOA

Théophile Gautier

Baso erdoitu-soillean
zugaitz baten adarrean
osto bat baizik ez da gelditu,
ostotxo bat ez besterik
eta txori bat bakarrik.

Maitasuntxo bat bakarrik
kantari dut barruan nik,
bañan udazken-aize zakarrak
orruka ez du lagatzen
ai!, aren kanta entzuten.

Txoriak iges-egin du,
aizeak ostoa uxatu,
maitasuntxoa berriz itzaii
negu beltzaren izotzez...
Txoritxoa, eldu zaitez
zugaitza berriz orlegitzean,
eldu zaitez abestera
nere illobian gañera.

JAUTARKOL.

DONOSTIA

AGURTU

Bere lagun batez etorrita E. Etxean agurtu degu "Txantxikutarra" Oñatiko euskel idazle adiskideа.

E. ETXEKO JAIAK

Datorren igandera, bigarren eusko antzoki jaiaren saioak gogoz dijuaz.

Artola'ren "Xabiroya" ta Amundarain jaunaren "Uste diñat", antzerkiaz gañera beste xelebrekerienbat izango da.

Ordu ta abar urrenguan iragarriko degu.

BIGARREN ITZALDI ABERKOIA

Abertzaletasuna zabaldu biarra dagoala ta, ill onen 25'rako beste itzaldi aberkoi bat, donostiar abertzaleak eratu degu.

Euskadirentzat, aiñ mingarri dan legea jarri zan oroipen zitaleko egun ortan, Aranzadi'tar Imanol, guzien ezaguna dan abertzale zintzo ta jakintsu onek, itzaidia zuzenduko digu.

España'ko Aldundian, Euskadi alde, arpegi ta arrazoia eman zuben Iruñar seme abertzale oin entzutera etorriak, E. Etxeko aretoa, mota guziko euskotarrez betea, ikusi nai degu.

Itzaldien gai, ordu ta abar, garaiz iragarriko degu.

IZTUNDE IZPARRAK

Batzorde onek euskera ikasteko duben ikastolara, iñoz baño ikasle geiago datoz aurten.

Ezer ez dakinak ikasi, ta zerbait dakienak obeto jakin naia ikusten da.

Gure ele zarra ikasi, ta mintzatu, egiazko abertzale euskotar biar duena da Euskadi, Euskadi izan dedin, ta ez euskera gabeko beste aberri bat geiago.

✤ ✤ ✤

Eusko antzerki sariketarako, naiko antzerki bildu dira. Beroik irakurtzen epai maieko jaunak, zintzo jardun dira.

Sariketa au sortu ezkero, iru ekitaldi dun antzerkientza dagon lenengo saria, oraindik iñor irabazi ez du.

¿Aurten irabaziko ote da?

ESPAÑARRA

Cullero'ko ikastoleko irakasle izendatu dute, orain Pasai'en irakasle zegon, Egaña'tar Zakari, E. Etxeko antzezlari ona.

Euskaldunak España'ra, ta "Ojillo del rey", "Fuego mojado", "Caiabazin del Puerro" ta orla uriko semeak Euskadi'ra, guri "intelectualismoa" zer can erakustera.

¡Au bai dala "penetración pacifica!

Ondo bizi motell lur aldi oitan, ta txakolin onik txotxian Cullero ortan jartzen dutenian, "Abisa"—urrutizkiñik baldin badago—"Kaxpeltxo" bana "Kokotx" artu, ta "Pipo" txistuakin dala, "xalto" batian or gaituk eta.

ATARRENE.

ZARAGOZA' TIK

Kristau-ikasbide ta Gaztedi Katolikoen Batzarraldiak, a la bearrez kristau-ikasbide ikastaldiaren azkenengo eguna eta Gaztedi Katolikoen batzarraldietako lenengoa, biak egun bateak, emen igarotzea gertatu zait.

Lenengoa izan leike aunditasunik ospetsuenakin, jaunartze, itzaldi ikastaldi, antzerki eta abesbatzen abestalcirik bikañanakin bukatu zan.

Tedeschini buru zutela, eta Balladoliz'ko Gongotzai ta Gazteiz'ko Gotzaia Euskaldunetatik agiri zirala, 14 bat Gongotzai ta Gotzai apaiz talde ikaragarria eta agurtau guziak Principe Asturiastarra buru zutela bildu ziran. ¡Ondoren etekintsuak aterako al dituzte!

Bigarrena. "La Seo" eleiz jatorrean jaupa ta itzaldi xamur bat egin ondoren Cuenca'ko Gotzai agurgarriak jauna emanez asi zan. Gaztedi errespetokoa bildu zan eta euren batzarralditik ondoren onak itxaro leizke. Batzarraldi onetan Gatika'ko Gaztelu apaiz jauna, Bilbao ta Egia abertzaleak agurtzeko zoria izan nuen euren ikurrin ta guzti etorta. Zestuatarrai erc ustez-uste gabe bostekoa estutu genien geiago alkar ikusterik izan ezpagenduen ere. Auek ere euren ikurriñarekin ziran eta geiago ere izango ziran, baño nik ezagutu nituenak beintzat auek dira. Jaunartze aurretik Cuenca'ko Gotzaiak egin zien itzalditxoan, azken ona irizteko zoria eskatzeko agincu zien eta izpaigabe, ondoren bikañak aterako al zituzten batzarraldi auetatik.

ERAKUSTOKIA

Aurrai asperrerazi gabe Kristau-ikasbidea euskusteko aurrerapen berri guziak erakusten diran erakustoki eder bat erc bazegoen Lonja deritzan jauregi jatorrean. ¡Erdi jolasean gauzak erakusteko, aukera ederra zegoen!

EUSKO-BASETXEA

Zaragoza'n 6.000 euskaldun inguru daudela diote eta "Caserio Vasco" deritzan ostatu polit bat daukate Estebanez Etxadian 4'garren zenbakian ostalariak eibartarrak ta euskaldun garbiak dira ta irabazi polita daukatela diote. ¡Pekin'era iristen ba naiz ere, eibartar euskaldunen batekin alkartzeko itxarpena ezin galduko det!

AGURTU

Ustez-uste gabe emen agurtu degu Uzin tar Julen soraluzetakoa, bere emaztearekin. Zorion ugariak opa dizkitzuet zuan bizibide berri orretan.

IBILTARI.

OIARTZUN

Lengo igandean Luistar sail ederra Itziar'en izan gera. Egun eder eta gogoangarria uraxe, 60 idazle Luistarrak alkarren beruan oitura onak indartu ta gure artean orrenbesteraño sartu diran loikerizko bide txarrak urratzeko gogo biziakiñ, etorkizun pozkarria benetan.

Juan bizarkentzalliak alabatxo bau izan du. Zorionak.

Bordagarai ta Munoa'ko bi aingeru zeruratu.

Lete basetxeko andrea il da. (G. B.)

Sagarbixti'ko neskatxa Ondarbiar batekin ezkondu da.

Gaur (igandea) Lartaundarrak antzerki jai bat eratu dute misiotako txindia biltzearren.

"Idartza'ko jauna" ta "Morroi jatorra" aurretik misiolarien ikuskarri batzuek azalduaz.

ENARA.

OTZANDIYO

BASURDIAK

Anboto ta Gorbei-barrenetan ainbat agertu dira aspaldiyan eta lugiñentzat lortxarra gertau da; ba arto apurrok yan biar dabez da. ¡Bai, lugiñ gixaixuak ba'dauka ainbt areriyo! ¡garo dirian urtietan ezta pizti onen zaratararik izan ezkurra naiko ixan ¿abelako mendiyan, baña aurten eztagon lez, arenbatera yo biar.

¿YAÑO ALA YAINDO?

Marin'go "Jaño" yaunak niretzako itz bi ipinten dituz igaro dan igandeko "Argian"-n. Eskerrak anei guztiyagaitik eta orain zeuk be entzun. Len, orain da beti "Yainda"" esanda Otzandiyo'n, Ubidia'n, Legutiano'n eta Olaeta'n; "Yaindo" Aramaiyo'n, Gatzaga ta Leintza guztiyan. Idazti zar baten ikusi dot "Jarindo" baña "Jaño" iñun bez. Alan ba, zeian esaten danari begiratu biar baiyako "Yaindo" edo "Jaindo" esaten dau lez. "Yaindo" edo Jaindo esan biar da. ¿Argi dago?

Eta onek arazuok irakaskorrak (instructivos) diran lez, asarre-soñuan barik aiskidetasunian erabagi biar dirala deritxot. Agindu Jel'pian.

BAKIAN EZIN BIZI

Aspaldi onetan ba'da España'ko laterriyan artegatasuna ugari; bateko ikaslak dirala, besteko langillak dirala bai oporketia ta zaratia. Bai ba, Lenkusuak zazpi urtian lotutakuak orain pizkat askatu diranian orrua egiñ biar ba. Miñ daukanak ¡ai-enetxo! esatia be ezta mirari.

BEKOLETA.

AZKOITI

DEIA

Datorren igandian 19'an deitzen zaie uriko neskatxa abertzale eta zaletasun ori duten guztieri, arratsaldeko lau terdietan Eusko Batzokian biltzia, alduten guztiak, erabakiak izango dira, bertan bazkide izanik Batza bat jarri, eta biar dan eran zintzo jarraitzia, bakoitzak iezakiena zintzo egiñaz, guk guztiok bat egiñaz, aske nai degula izan len giñan bezela euskaldunak, erakutsirik erri alde guztian, batu bertan danok, aukeratu zeon batzorde sutsu bat gogoz lanak egingo dituana, kementsu, Batzokiko artezkari Batzak erabakiak, jakin beonen naiz-da igandeko Batzarra.

ERIOTZA

Gure Jaunak bereganatu digu ludi ontatik ikurtun deunak artu ondoren gure lagun Uria'tar Joseba (Ormola) G. B. laguntzen diogu atsekabian bere emazte seme alabari irakurtja otoi bat aren alde.

TERESA DEUNARI

Bederatzi urrera asiera eman zitzaion bere egunian Altzibar'ko Lekaime Karmeldarretan notin asko eltzen dala:

✤ ✤ ✤

Gudaritzeko Aprika zozkeran aske urten dio gure lagun abertzale Astigarraga'tar Kepa'ri Beragatik pozten gera, baita berdin Etxaniz peiotari nagusiari ere.

NASKALDIA

Gure artian degu abertzale euskel idazle azkar Elgezua'tar Karla "Pagope" baita mutrikoar neskak Mirentxu abertzale ona.

BEDERATZI URRENA

Txadon nagusian azti emango dio asiera gure Jaun Kisto bakaldunari, baita Aita Pantzeska Deunarentzat ere, txouizlari izango degu aren seme bat.

POZTUTZEN GERA

Gaixo aldi bat igaro ondoren kalera urtenda ikustia, gure lagun abertzale jaupari agurgarri Areso'tar Yon osasunaz indarrak arturik, jarrai orretan.

EGI-ALDE.

EUZKADI izparringi onek eta aberkide on batzuek KIRIKIÑO zanak egindako ABARRAK

argitaldu dabez. Liburu au ezta lengoaren zatia, barria baño. Salduko diranak itziko dabena Kirikiño'ren esker-gomutean emaitza bat osatuko dabe.

Il zanari eskerrak agertu gura dautsezanak erosi barik ez leuke itzi bear. Eskatu izparringi au errian saltzen dabenari.

ERMU'TIK

EDERKI, TXINDURRI

Poz aundiakin irakurri dot, zure izparra edo eskaria egiten dautsazula erdel ataletik, Udal gizoneri, ikastola aspia-gaitik eta alan berdin txadona piagaitik; alan da izan be, txadona azpia apain-pin imini biar litzake, gaztedia jolastu daun. Ondo dago, barruan jaya ospatzen caguanian ez ustia, orretan neu gogorrena, zergatik iñun ez da ikusten, jai bitartian iñor jolasten, baña orain daguana ¿zer da? galazo eraginda guzti guztia, au ez dago ondo, ganian datorkigun negu gogorrian ¿zer egingo du gaztediak? lenbiziko oña jaurtzen duana ardau etxera, eta au ¿ondo ikusten al du ure agintariak? bada gomutau bere garaiz, zuen eskuan aurkitzen da ta; eta ikastola azpia galazo egin dauzue, ori zubek, jakingo dozu zergaitik egin dozuben, len imintzen, or ibili ziran, eta lan eder bat egin eben, eta orain galazo (en pin, Jainkuak egin zuben Martin, bere jun-etorri guztiekin).

Neuk otxalotzen zaitut Txindurri gomutau zarielako eskari orregaz.

JAYOTZA

Alabatxu bat izan dube Arrizabalaga'tar Ziprianek, eta Lauzirika'tar Karmen'ek ugatzautzian ezarri dautsie (Maria Begoña). Aita-ama bitxi izanik, Azpiri'tar Batizta, eta Bergaretxe'tar Maria Begoña. Zorionak.

OSATEBAKUNTZA

Egun onen baten Bilbao'ko osatetxian egingo dautsie osatebakuntza edo operaziñua gure lagun eta jeltzale aundia dan Ormaetxea'tar Andoni'ri. Jaunak laguntuta orra bada arin-arin, etorri bedie gure artera, senda senda eginda, neuk ori opa duat.

GUDARITZARA

Ospatu dan igandean Durango'n eunkin dute, gudaritzarrako zozkera emengo iru mutil gaztek, eta euretatik bi asko jauzi dira, eta bakarra onuzko, euri opa duat Pelagi, Euskel-erriko uritxo batera jauztia, eta beste biori neure zoriona.

ZELETA GAXO

Gure idaz laguna soraluzetarra Garmendia'tar Jon (Zeleta) irakurri dogunez Olaberri'n aurkitzen dan, osatebakuntza aginda. Bene benetan, tamaltzen gara, eta neuk otoi dagiot Jaunari beren osasunan alde.

NEKAZARIAK

Onek darabie gauzia etxeratu biarra, emen dabiz gau, eta egun onek ez daukie (ocho horas) etxe guztiak, goiko zakapietaraño, tun, tur, tun, tur egin ditue, ¿zer ez? ¡ai neu banintza emendik aurrera nekazaria, negu ederra igaroko neuke, zu oncuan, gaztañak erre, eta parabolak jaurtiaz, au onegaz amaitzen da, (Daukenak bauko, eta eztaukonak baleuko) azkenengua guria.

ERMU-ZALE.

ZALDIBAR

TXINDURRI'RI

Zelan aspaldiyan ez genduan irakurri, euzko izparringi onetan, zuk idatzitako izparrik, oraintxe nenguan asmo betian, itaun txiki bat egiteko "Ermu-Zale"-ri, ia zer gertatzen yatzun ixiltasun orregaz. Bada susmu txarra artuta nenguan "errekaldeko lengosuaren" eriyotziak, atsekabez beteta eukiko zinduzela, eta zure aurka, izki bat edo bi egitera nindoyan, baña ezta olan izan, ikusten dodanez igaro dan osteguneko Jel izparringi onetan, zegaitik bertan, olerki ederrakaz, biotz biotzetik besarkatzen dozu zeure illoba maite eta euzko idazle barri "Lomiño" erakutsirik bitxabala, euzkotasunaren billa juateko.

Neure aldetik, estutuko dotzazu bostekua, "Lomiño"-ri, eta barciñ "Ermu-zale"-ri, eta amaitzera oroya, zeure omenezko idazkun au. ¡Gora Txindurri", didar gogotzo bategaz.

GUDA MUTILLAK

Lengo igandian euki eben erabagiya Laterri onetan edo Apirkan ordaindu euren zor bagako morrontza au.

Uri onetatik, iru dira juan biar dabenak, Maortua'tar Agustin, Uneta'tar Errapel eta Uribarri'tar Peli.

Asko tamaltzenok "txoko" onetatik, zuen guztizko urrutira aldentze onegaitik, da gomutau zeuen lagunakaz, zegaitik emen gelditzen dituk, zeueri itxaroten zatozenian gogotik besarkatzeko.

"ABARRAK"

Juan dan amabost egunian, esku arteratuta daukaz idazki polit onek, geure lagun dan Bengoa'tar Lon'ek, eta iñoz be ez gelditu erosi barik, zegaitik laurleko biren ordaiñez, bertan irakurriko dozu "Kirikiño" zana k(G. B.) geure izkuntza garbiyan idatzitako, edesti oso panegarriyak.

JAIOTZA

Igaro dan astartian, ugutzau eben uri onetako Deun Ander ertxadonan, Miren Abene euzkel-izen polita ipiñirik, Berasaluze'tar Pantzeska eta Garitazelaya'tar Karmelaren lendabiziko alabatxo jayoparria. Aita eta ama bitxi izan ziran, Berasaluze'tar Andoni eta Sarriugarte'tar Miren.

Euskel atal onen bitartez, artu beizue danok, neure zorionik sutsuena, batez bere iri Pantzeska, ordaintzera nozak egindu ta daukadazen txaluak, zegaitik erakutsi dok, abertzaletasunian, eure odolak ez cabela aldatu margorik.

NASKALDIYA

Denbora luzian aurkitzen dira uri onetan Bilbo'tik etorrita abertzale zintzo dan Gallastegi'tar Alesander'en sendi dana.

AZKORGAIÑ.

ZEANURI

NASKALDIJA

Canarias'era joan da emen Zubiate'ko jauregian aldi bat igarota Uarte-Mendia zaiatari edo fiscal jauna da emaztea.

Ribera de Vaderejo'tik (Araba) etorrita emen euki dogu Etxezarraga Julen jauparia.

Osabakuntza bat egin da ondo dagola entzu dogu Altzuste'ko ikastolako Goitiosolo irakaslaa.

Valderribile (Santander)-ra maixu izentau dabe erri onetako seme irakasle dan Intxaurbe'tar Peli jauna.

ZER ITXARO GEINKE ONAN

Lengo aldian ipiñi gendun beste erri batzuetan yakin daguen be erri onetatik maixu maistra ikasten dabiltzazanak 11 edo direla.

Orixe izango da bide ona noz edo noz baletor askatazuna umiai ikastolan euskera lenengo ikastaro aldian eginteko. Erriko gauzak erritarrak ondoen. Kanpotik etxea zaindu ten etxaorku iñor. Oraintxe ikusi leike emengo irakasle edo emengo seme da Intxaurbe'k Plaze'a atera dau azterketetan da erri asko dira Bizkaya'n maixu bearrizendunak. Ba or dozue euskera egundo entzun eztabenebat umiak erdera tautik eztakien irakasle. Ta euskera dakiena erdal errira. ¡Ederto yagok...!

ABERTZALEEN BATZARRERAKO

Erri onetatik batzar orretara yoateko len Uri-Buru-Batzarre'ko zan Apoita'tar Purdentzi ordezko ta ordezko gai Goikoetxea'tar Eleuteri izentau dira. Orretarako batzarra egin zan da.

GOGO-IÑARKUNETATIK

Oso pozik etorri dira emendik Loyola'ra yoan ziran 15 neskatilla. Gogo markunak eginda.

LOTERIE YAUSI

Emengo Muzabal'ko basetxe'ko Iturriaga Illare'ri 16 mille ogerleko yausi yakoz Beronek iketz arazoa dauko Bilbao'n Zorionak, ba... Ezta aztoen arrantzea be ta.

MAZKATOI BASETXEAN

Dagoz zorrosti edo mateta bi dagonillan 27 edo bitxabal edo camiñoan belbil'en batetik yausite da ondiño ugaza barik agertu etxakienak.

LATERRI IKASTOLAK

Laster amaituko direla entzun dogu: Gobernadoreak bidaldu dautso udalari idazkie, len eskolak egiten ibili direzanak amaitu bear dabe. Tira ba.

✤ ✤ ✤

Artu doguz: "Jaungoiko-Zale", "Abarrak" bigarrenak, guztiz politak, "Bizkaitarra" be bai... gogor yator, mutiliau.

EGURALDI

Oso epela daukagu artoak eltzeko da kanpo danentzat guztiz ona.

FERIE

Abere gitxi yatzi dabe lugiñak eguenian, zanauriak goitik dabiz.

SUBI'KO BEARRAK

Ur-blonkada bategaz atzera apur bat dautse... baña egunotan yente asko dabil.

BASURDEK

Basurded ondiño eztire geratu. Ipizar'ko soloetara be egin dabe. Ia ba eiztariak.

BASERRITAR BAT.

GOIZPARRA

Beiñola Jesusek abade nagosiei ta parisenei ipuin bidez ziotsen: "Zeru yaurerrian errege bateri bere semearen eztegueta yazo yakona yazoten da. Bialdu ebazan mutillak ezteguetara deitzeko ta bazkaldarrak ez eben etorri gura izan. Barriro bialdu ebazan beste mutil batzuk bazkaldarrai esaten: Otordua gertua daukat, txalak eta aratxeak illerazo dodaz, dana gerturik dago, erdu bada ezteguetara" Areik ordea ez eben yaramonik egin, bakotxa ordea bere solora ta lanbidera yoan ziran. Enparauak, mutillak artuta iraiñez bete ta il egin ebezan. Erregea au entzunik asarratu egin zan, eta gudarialdrak bialduaz iltzaile areik il egin ebazan, eta euren uria erre. Orduan esan eutsen mutillei: "ezteguak gerturik dagoz, baña deitu izanak etziran gai euretara etortzeko. Zoaze bada bideburuetara ta aurkitu ala deitu izuez ezteguetara" Otsean mutillak, bideetara urtenda bildu ebezan an zeudenak, on eta gaizto. Beraz eztegu-aria bete zan eta yarri maitara. Gero erregea sartu zan eztegutarrak ikusten eta gizon bat idoro eban bertan iztegu-yantzi bakoa. Ta esan eutson: "adiskide, zelan sartu az emen eztegu-yantzi barik? A ixildu egin zan ordea. Orduan esan eutsen erregeak zinegotziei: "eskuoñak lotuta yaurti izue atariko, illunbetara. Au izango da negarra ta ortz-karraska. Izan bere, asko dira deituak, gitxi ordea aukeratuak.

EGUNEKUA

Euzkadi'tik

"BIZKAITARRA"

Aste oneri yagokon zenbakia oso yantzita agertu da margo gorri eta orlegi. Idazki politaz dakaz baña batzuk min egitekoak direan uste dogu. Bakea bear dogu eta ez gudea. Guztiok alkarren ganako oldeak itzi bear doguz eta Aberriaren opaz buruak makurtu. Guza ederragorik ezta izango ama onaren omenez guztiok buruak makurtutea baño. Jaungoikoagatik eta aberriagaitik.

ABERTZALE AROZAOK

Badabiltz abertzaleak lanean batasuna egiteko. Guztiok abertzaleak bagara ez geunke beti aboan batasuna erabilli bear. Egin len bai len. Gazte asko dagoz nora jo ezdakitela batzuk au direala besteak ori direala eta.

Tamalgarria da benetan gaztean incarrak obeto ez arteztutea!

GAZTEAN ASIKEREA

Tillieux abak esan ebana gaur azaldu bear dogu arlo onetan. Gaurko eguenan zer edo zer jakin gura daben danai eskatu bear yake jakintza guztietan asiek izan daitezala. Batzuk gerkeraz eta beste batzuk lateraz erakutsi bear dala diñoe. Oneik ciencias erderaz esaten dana bakarrik egungo egunean ontzat artu bear dala ostera. Nor bide onean? Gizon egizkoak egiteko oba izaten da asikera osoa erakusten, Alderdi batera joten badabe ezin ikusi izaten cabe bide bat baño. Clasikuak oso onak dira gazteak ondo asteko, baña begien aurrean euki bear aren lizunkeriak eztagiezan ikazi.

Biidurrez dana estaldutea bere ezta onena izaten baña ez erakustea bere txarra da. Laterri gorenguak euren lurrean clasiku ikasteak euki dabez elertilariai onura andiak ekarri dautsez eta.

Gizon ondo asiak izateko bear bearrekoak dira clasikuak. Areik ludia begi bakunekaz ikusten eben eta ez oraingo elertilariak antzera guztiak andiegi eginik.

Arlo oneik amaituta ostean katoliku ekintzan zelan ekin bear daben gazteak azaldu zan. Jarraituko dogu.

España'tik

MADRID

Errepublikanoak ikeratu egin ei dira erria buruz bera doalako comunista aldera. Eurak erain dabe azia eta orain emaitzik eztabe lortu edo batu gura. Belutxu ez ete da ba? Liberalak edo olakoak euren txindiz argitalduten dabez izparringi ezkertarrak eta oneik dabiltz comunisten ikaskisunak azalduten. Orain bildur dira txindiak kenduko ete dautsoezan.

VIGO

Diaz de Mendoza antzerkilari ospetsua oso txarto dago egun oneitan. Larramendi osagilleari ots egin dautse lagundu dagioen tzat eta paralisis edo olakoren bat daukola esan dau. Ezta bildur lar eukiteko baña txartoago bere lotu daiteke laster gexo orregaz. España aldean min andia artu dabe askok barri ori jakitean.

TOLEDO

Atzo ospatu zan Batzar nagusiaren amaya. Batzarrean artu diran erabakiak azaldu ziran azkenean. Gero eresieta elertizko entzungarri bat egin zan.

BARCELONA

Zeta timistargien bonbillak egiten dira olakoak oporketan dagoz. Atzo aikarren aurka zer edo zer egin eben langilleak batzuk lan egin gura eben eta besteak ez ostera.

Epaikariak zuzen cabiltz ikastolan jazo diran gora berak dirala-ta. Nagusi dan jaunari ots egin dautse atzo. Gero espetxean dagoan ikasle Companys eri dedar egin eutsoen.

"Solidaridad Obrera" barriro epaikariak lotu dabe argitaldu daben "La politica del Gobierno" deritxon idazkiagaitik.

DIRU GORA-BERA

España'ko Diru-etxearen bein beineko yaurlari zan Cabra'ko markesa, Gobernuak geldierazo egin dau bere egin bidean Diru-aldaketa arazoan ez ei dautso Ogasun-ministruari iagundu.

"LA PUBLICITAT", SALATU

Catalunya'ko egunerokoa au salatu egin dabe, erregearen aurka iraiñak dakazalata.

OPOR-GUREA SEVILLA'N

Lngille batzuk Dos Hermanas inguruan oporraldirako gertuten iñarduela, txapelokerrak etorrita atzitu egin dabez. Guztitarako oporra biribildu gura eben.

Au ta guzti bere guztitarako oporra erabagia daukie, ta biar astelenez lanari itziko deutsoe.

COMUNISTEN BATZOKI GORDE BAT

Madrillen, Eraso kaleko 23'garrenean comunisten batzoki ixilikako bat aurkitu dabe erritxiñela. Atzituak Arroyo ta Pego izan dira, epai-etxearen eskuetan izten dituezala. Emetik espetxera eroan dabez, bakotxari autorpena artu ondoren.

Erri-txiñelak agiri edo dokumentu asko atrapau ditu etxe artan: 1.500 carnet erkietako bazkideentzat eta abar. Ez ei dago bildurrik, euren artean ondo eraturik ez dagozalako.

Atzerrieta'tik

LONDON

Ingalanda ko ordezko guztiak batzen diran aretoan amaitu dabez erabakiak. Atxo bialdu eben arautegia gobernuaren aurrera. Comite bakotzak erabakiak artu arteraño eztabe batzar geiago egingo. Irurogei arlo baño geiago erabilliko dabez eta orrega itik eztira beingoan batuko batzar nagusi batean.

BERLIN

Doixtarren gobernuak gurenda andia lortu da Reichstag deritxon tokian, 500 milloi ko emprestitua egiteko baimena jadetsi dau ba. Au dala-ta itz gogorra asko erabilli ebezan alkarren aurka ministruak eta arerioak.

PARIS

"Le Journal" izparringiak España ko laurlekoa zelan dagoan azaldutko idazki bat argitaldu dau. Guztiok lan egin bea dogu laurlekoa goratu dagiten. Parantzetarrak ondo egon dagiten gura dabe España euretzat biderik onena orixe da ta. Politika arazoak zuzenduten bere lanik naiko dauke España'tarrak beste arazoetan ibilli barik bere lagundu egin bear yake ba.

MONTEVIDEO

Palmiere deritxon gizon bat batel batean eldu zan uri onetara etorten dan "Campana" itxasontziaren ondoan. Arin jeikí ziran bederatsi anarkista España'tar tarrak. Laster lotu ebezan guztiak policiak jakin ebenean ontzitik iges egin ebiela. Iñor uri orretan ezin lotu al izetan dabe orrela etorteagaitik eta aske itxi ebezan palmiere lotute bakarrik dago.

NUEVA YORK

Policiak amabi lotu dauz eta banatu dauz irureun baño comunista geyago. Itz an diakaz letretuak daroez kalez kale "Lana edo txindia" eskatuten dabela.

Bost milloi inguru dagoz lan barik laterri orretan. Lan bako asko espetxera doaz gabean oea eskatuten.

WASHINGTON

Amar urte onetan ezkontzak geyago ziran dira ezkontza apurtuteak baño laterri onetan. Igez egin ziran 1.233.000 ezkontza eta 1.201.000 ezkontza auste.

Euneko irurogei ezkontza auste emazteak eskatu dabez gizonak okerrak diralata Gizonak ezkontza auste gitxiago eskatuten dabea andrak baño.

VARSOVIA

Aldun diran emakumeak Polonia laterrian datorren illean agertuko dabe erabaki gai bat parlamentura laterri onetan derrigorrezkoa izan daiten gudaritzea emakumeentzat bere. Amazortzi urteko neska guztiak joan bearko dabe gudari itzara eta amazortzi illebete egin bearko dabez.

RUSIA'TIK

Soviet'arren baltzikeria. Andia egin deutso erri gaixoari. Europa osoa gariz estaltzeko ainbat sortzen daben lugin gizagaxuei neurria ipiñi deutse yate-kontuan. Eurak Laterriko suteetara yoatea beartzen dauz, eta bolchevique diran giñoan aztzen dabe ano edo erraziño ori. Bolchevique andiei ano andia, txikiei, txikia, ta bape bolchevi'tasunick ez dauanari barau gorri gorria. Bolchevique'ak izan bear naita ez.

EGAZKIÑEZ

Hill yaunak porrot egin dau Inglaterra'tik Australiarako bidean marka urratu gura izanik. Atzen-aurreko egaldian gertatu yako ezbearra. Labur lurreratu eban bere egazkiña, ta alan bere, barriro igon gura ta egazkiñak bira egin dautso, eragit